

## Hautatutako proiektuak hauek izan dira:

- **Nekazaritza eta nekazaritzako elikagaien industriaren esparruan:**

### « DANEGAZ »

- ✓ Kideak : Hazi, INTIA, DOP Idiazabal, AOP Ossau Iraty, FRCAP et DOP Roncal
- ✓ Aurrekontua : 136 950 €
- ✓ Dirulaguntza : 65 236,13 €

DANEGAZ mugaz gaindiko kooperazio proiektu bat da non helburua Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa Euroregioko zonalde desberdinetan Jatorri-deitura Babestudun (JDB) gazten produkzioan parte- hartzen duten eragileen sare bat sortzea den. Sareak kolaborazio-espazio desberdinen (mintegiak, tailerrak, truke-bisitak...) inguruan lan egingo du, balio-kateko behar eta desafio amankomunak identifikatu, jakintzaren eta praktika onen elkartrukea erraztu eta mugaz gaindiko kooperazioa eta berrikuntza proiektuen bizkortzea sustatzeko.

### « TOKI-POMMES »

- ✓ Kideak : UPNA, INTIA, Neiker, Conservatoire végétal Regional d'Aquitaine
- ✓ Aurrekontua : 92 880 €
- ✓ Dirulaguntza : 44 243,39 €

TOKI- POMMES proiektuaren helburu nagusia zera da, Euroeskualdean hobekien egokitu diren bertako sagar barietateen identifikazioa eta selekzioa, produktu bereziak ekoizteko eta hauekin frutagintza iraunkorra sustatzeko.

- **Osasuna-Biosasunaren esparruan :**

### « CARDIOREG »

- ✓ Kideak : CIMA, Viscofam SA, Université de Bordeaux, Urtasun
- ✓ Aurrekontua : 150 000 €
- ✓ Dirulaguntza : 71 452,50 €

CARDIOREG proiektua soluzio bat eskaintze du gaurko ECV-ek duten paradigma tratamenduari. Soluzio hau interes estrategikoa dauka AECT eskualdeentzat: miokardio infartua duten pazienteentzat zuzenduta, CARDIOREG tratamendua medikuntza eraginkorra eta kostu gutxiagorekin emaniko du.

- **Aeroespaziala eta fabrikazio aurreratuaren esparruan :**

### « FCOMP »

- ✓ Kideak : Naitec, ESTIA, Microlan, HEGAN

- ✓ Aurrekontua : 150 000 €
- ✓ Dirulaguntza : 71 452,50 €

Fabrikazio aurreratuan berrikuntza, material konposatuen propietateak aprobetxatuz, eta baita manipulazioa ere, sektore aeroespaziala errendimendu handiagoa duten osagai berriak, arinagoak eta integratuagoak ahalbidetuko ditu. Berrikuntza horiek hiru eskualdeen esperientzia aurreko eta osagarrian oinarritzen dira, balio-kate osoan.

#### **« DARWIN »**

- ✓ Kideak : Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, TEDCAS, ESTIA, EESC
- ✓ Aurrekontua : 99 926,08 €
- ✓ Dirulaguntza : 47 599,79 €

DARWINproiektu honen baitan, "MGEP", "ESTIA" eta "TedCas" erakundeek osatutako partzuergoak robotika kognitiboaren inguruan ikertzen aritzeko erregio arteko zentro bat garatzeko oinarriak ezarri nahi ditu. Proiektu honetan, batetik robotak programatzeko beharra murrizteko (beso manipulatzailerik eta plataformarik mugikorrenzako baliagarriak) eta bestetik, lankidetzaren ingurune erreala eta fidagarria ezartzeko roboten pertzepzioaren ziurgabetasuna murrizten lagunduko duten teknologiak garatuko ditugu.